

ARRASATERI BIRA 2018

Abenduaren 2an, goizeko 7:40etan jendea elkartzen hasi zen José María Arizmendiarieta plazan. 85 pertsona inguru batu ziren bertan. Goizeko 8:00etan puntu-puntu 1. taldeak hasiera eman zion aurtengo Arrasateri Biraren 2. edizio honi ibilbide osoa burutzeko asmoz. 10 minutu beranduago 2. taldea hasi zen 3. aldaera burutzeko helburuarekin. Bidetik nahi zuenak irtenbideetatik etxerako bidea hartzeko aukera zeukan. 2 talde distantziari dagokionez helburu ezberdinekin, baina funtsean sentimendu berarekin: oinez mendizaletasunaz gozatzea. Hasierako lehen orduan tanta batzuk bota bazituen ere, ibilbide osoan ateri mantendu zen eguraldia.



Mendizale batzuk prest José María Arizmendiarieta plazan



Lehen kilometroak burutzen San Andreseko auzoa zeharkatzen



Bedoñako auzoa helburu



Bedoña auzotik dagoen ikuspegia



1. Taldea Kurtzetxikin (531 m.) 9:00etan

1. Taldeak aurrera egin zuen. 2. Taldea (12 pertsona inguru) atzetik zetorren, bere erritmoan. Kurtzetxikiko elurzuloa bisitatu ostean, aldapan behera hasi zen. Lurra irristakor zegoen jausitako euriaren ondorioz. Arretaz jaitsi behar zen, norberak non zapaltzen zuen ondo begiratu. Hala eta guztiz ere, arriskua beti hor dago zain eta halako batean... plaut! Norbait jausi egin zen, momentuan hankan mina zeukan. Larrialdietarako protokoloa 1. fasean aplikatu behar izan zen baina handik gutxira buztanean zihoan arduradunak buruari egiaztatu zion egoera susto batean besterik ez zela geratu eta pertsonak aurrera jarraituko zuela, hots, larrialdietarako protokoloa 2. fasean ez zen aplikatu behar izan. “Edozein mendi-irteeratan larrialdietarako protokoloa garbi daukagu denok. Horregatik *walkie-talkie* zein telefono bidezko koordinazioa ezinbestekoa da mendizale katearen burua eta buztanaren artean. 35 lagunetik gorako taldetan (atzoko kasua) tartean beste arduradun bat sartzen da laguntzaile gisa, talde osoaren segurtasuna bermatzeko. 3rak koordinatuta doaz komunikazioari dagokionez eta jarraitu beharreko ibilbideari dagokionez. Horregatik arduradun guztiek *track* edo aurretik grabatutako ibilbidea daramate GPSan kargatuta, puntu kilometrikoak ikusgai” azaltzen digu Sergio Serranok, Biraren antolatzaileak.



Kurtzetxikitik jaisten ia Arrasate osoa ikusgai daukagu



1. Taldeko lehen mendizaleak Musakola auzoa zeharkatzen 10:05etan



Motxongo kobaren sarrera bisitatu ostean, Meatzerreka elkartearen kanpoko aldean indarrak berreskuratzen 11:05etan



12:00etan Udala auzoa zeharkatzen



Udalako garbitzeko tokian 12:10etan

Mendi-ibilaldiak kirol kutsuaz gain, osagai etnografikoa ere bazeukan. Horregatik mendizale bolondres baten laguntzarekin taldeak ezagutu zuen espazio honen garrantzia antzina.



Jaime bolondresak azalpena irakurtzen taldearentzat

IRAGANEKO AHOTSA

Ure ezta allegau beti etxeko iturrirre. Garai baten fan biher izeten gauen auzoko iturrirre uretan. Hango ure estima haundikue zanez, ordu batzuetan jende illera haundixek egoten zien. Atxekixie edarra auzokuekin barriketan eitteko eta hartu-emunek sendoketako.



1. Taldea Udalako San Estebaneko eliza paretik Udalatzen begiradapean
12:15etan



Arteaga jatetxearen ondotik Garagartzako haranaren ikuspegi paregabea daukagu,
Murugain zaindari dela. 12:30etan



1. Taldea Polo Garaia zeharkatuz 13:05etan



1. Taldea Mondragon Unibertsitate ondotik igarotzen 13:15etan



Mendizaleak Santa Barbara parke ondoko Arrasate Pasealekutik, helmugatik gertu 13:20etan



Azken mendizaleak José María Arizmendiarrieta plazan 13:30etan elkarri agur esaten, hurrengo urtera arte, Arrasateri Biraren 3. edizioa egongo baita



Sergio Serrano antolatzailea helmuga puntuan

“Parte-hartzeari dagokionez (85 mendizale inguru 2 taldetan banatuta) pozik nago. Mendi-martxa logistikoki ondo antolatuta baze goen ere, agian 3. edizioari begira, 2. taldearen irteera ordubete atzeratzea (9:00etan) planteatu behar da, ea modu horretan familiak animatzen diren parte-hartzera, helburuetako bat mendizaletasuna familia giroan sustatzea baita. Ni eta laguntzaile taldea gogotsu geratzen gara hurrengo edizioan formula hori aplikatzeko, belaunaldi berrien erreleboa erein egin behar baita gero fruituak jaso ahal izateko. Hala bedi. Mila esker guzti-guztiori eta datorren urtera arte!”